

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGUA, MERKATARITZA, TURISMOA ETA FORU ADMINISTRAZIO SAILA

146/2024 Foru Agindua, apirilaren 17koa. Aldatzea irailaren 14ko 46/2023 Foru Aginduaren eranskinetako hirugarren puntua, Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorrean, administrazio orokorreko eskalako kudeatzaileen azpieskalako (A taldea, A2 azpitaldea; kodea: 2119) karrerako funtzionario gisa sartzeko 2019ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokion epaimahai kalifikatzaileen osaerari dagokionez

Irailaren 14ko 46/2023 Foru Aginduaren bidez (irailaren 22ko ALHAO, 112. zk.), onetsi ziren Arabako Foru Aldundiko administrazio orokorrean, administrazio orokorreko eskalako kudeatzaileen azpieskalan (A taldea, A2 azpitaldea, 2119 kodea) karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak eta epaimahaiaren osaera, 2019ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokionez.

Epaimahai kalifikatzaile horretan parte hartzeko izendatutako pertsona batek uko egin duenez, aldatu beharra dago.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Horrez gain, diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorritik, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea irailaren 14ko 46/2023 Foru Aginduaren eranskinetako hirugarren puntua, Arabako Foru Aldundiaren administrazio orokorrean, administrazio orokorreko eskalako kudeatzaileen azpieskalan (A taldea, A2 azpitaldea; kodea: 2119) karrerako funtzionario gisa sartzeko 2019ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokion epaimahai kalifikatzaileen osaerari dagokionez.

Epaimahai titularra:

Baja.

Kidea: Itziar Ortiz de Zarate Fernández.

Alta:

Kidea: María Ruth Ontoria Esteban.

Bigarrena. Agintzea foru agindu hau argitara dadila ALHAO eta Arabako Foru Aldundiaren enplegu atarian: <https://www.araba.eus/PortalEmpleo>.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundean bertan; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien

Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan — Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin loturik— xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 17a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR